

Erlojuaren arabera bederatzi ordu atzerago dago Kalifornia Euskal Herria baino. Egutegiaren arabera 4 hilabete. Irailaren 3an egin dute behintzat euren Maiatzaren lehena: *Labor day*. Eguna hurbildu ahala mobilizazio bakan batzuk iragarri zituzten han eta hemen: San Joseko *janitor* edo garbitzaileak, supermerkatu kate handi batzuetako langileak, San Frantziskoko BART tren konpainiako langileak ... Indar gutxi dute, hala ere, sindikatuek Estatu Batuetan; are gutxiago, Kaliforniako informazio teknologiako konpainietako langileen artean. Sobrare indibidualistegiak dira langileen eskubideen defentsan bat egiteko informatikako langile ezkertiar progreak. Grebari beste garai bateko kontu iritziko diote igoal.

*Silicon Valley*ko Palo Alto egin zuen bakar-bakarrik protesta 77 urteko «artzain»luterano erretiratuak. Bere txarteleko mezua sinplea: langileek 1 - exekutiboek 531. Langileei ordaintzen zaien dolar bakoitzeko exekutiboek 531 ordaintzen zaiela alegia. Iaz %18a igo zitzaizen Estatu Batuetako exekutiboek soldata; %4,3 langileei. Hewlett-Packard enpresako exekutibo nagusi Carly Fiorina andereak 69 miloi dolar (13.800 miloi pezeta inguru; 552 miloi libera inguru) jaso zuen iaz urteko soldata moduan. HP eta *Compaq* batu ondoren, zenbat jasoko ote du aurten, enpresak milaka langile kaleratuko dituen urte berean? (Inork ba al du antzeko daturik Euskal Herriari dagokionez?)

Gauza askotan Estatu Batuei begira bizi gara mendebaldeko gainontzeko herrialdeetan. Justizia sozialari dagokionez behintzat ezin hara begira bizi. Ultraliberalismo ekonomikoak injustizia soziala bultzatzen du askatasun indibidualen izenean. Estatu Batuetan dugu honen frogarik argiena. Desberdintasunak areagotu egiten dira eta ez dago kaltetuen erantzun aipagarriarik. Azkenaldian, ordea, sindikatuen indarra handitzen ari omen da, txikanoen artean batez ere. Datorren urtean akaso artzain protestanteak ez du protesta bakarrik egingo. Datorren urterako, berriz, norantz joko du 531-1 proportzioak?